

ESTABLEZIMENTSU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. LANDA HOTELAK ETA OSTATUAK. 2020KO URTARRILA

Euskal AEko hotel-establezimenduetako bidaiari-sarrerak % 7,2 gehitu dira 2020ko urtarrilean

Bidaiarien sarrerak oso antzeko tasekin gehitu dira hiru lurraldeetan

Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerak 173.318 izan dira 2020ko urtarrilean, aurreko urteko hilabete berean baino 11.656 sarrera gehiago, hau da, % 7,2ko igoera, Eustatek egindako datuen arabera. Lurraldeka, % 7,5 igo dira Araban, % 7,7 Bizkaian eta % 6,6 Gipuzkoan.

Bestalde, 2020ko urtarrilean Euskal AEko hotel-establezimenduetan 320.535 ostatu-gau izan dira; hau da, aurreko urteko urtarrilean baino % 4,5 gehiago, hots, 13.717 ostatu-gau gehiago. Ostatu-gauek bilakaera positiboa izan dute hiru lurraldeetan urte artean: Araban % 8,8 hazi dira, Bizkaian % 2,2 eta Gipuzkoan % 5,9.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako gaudiak, sarrerak, batez besteko egonaldia eta betetze-maila. 2020ko Urtarrila

	Gaudiak		Sarrerak		Batez besteko egonaldia		Betetze-maila (%)				Gelatioko Errentagarritasuna	
	2020/01	m/m-12 (%)	2020/01	m/m-12 (%)	2020/01	2019/01	plazaka		gelaka		ADR (eurotan)	RevPar (eurotan)
							2020/01	p.p.*	2020/01	p.p.*		
EUSKAL AE	320.535	4,5	173.318	7,2	1,85	1,90	38,5	1,3	48,7	1,1	68,5	33,3
Estatukoak	208.101	0,7	114.755	3,3	1,81	1,86	-	-	-	-	-	-
Atzeritarrak	112.434	12,2	58.563	15,9	1,92	1,98	-	-	-	-	-	-
ARABA/ÁLAVA	44.718	8,8	23.467	7,5	1,91	1,88	38,6	3,8	51,0	5,3	56,5	28,8
Estatukoak	35.621	11,3	18.813	7,9	1,89	1,84	-	-	-	-	-	-
Atzeritarrak	9.097	-0,1	4.654	5,7	1,95	2,07	-	-	-	-	-	-
Vitoria-Gasteiz	35.973	2,1	18.177	2,3	1,98	1,98	39,9	1,8	54,3	3,4	54,4	29,6
BIZKAIA	153.591	2,2	83.548	7,7	1,84	1,94	36,5	-1,3	47,0	-2,1	70,0	32,9
Estatukoak	99.641	-3,0	55.606	2,1	1,79	1,89	-	-	-	-	-	-
Atzeritarrak	53.950	13,3	27.942	20,8	1,93	2,06	-	-	-	-	-	-
Bilbao	109.080	8,7	60.081	10,8	1,82	1,85	40,6	-0,8	50,6	-2,1	73,5	37,2
GIPUZKOA	122.226	5,9	66.303	6,6	1,84	1,85	41,1	4,0	50,1	4,0	71,3	35,7
Estatukoak	72.839	1,3	40.336	2,9	1,81	1,83	-	-	-	-	-	-
Atzeritarrak	49.387	13,6	25.967	12,9	1,90	1,89	-	-	-	-	-	-
Donostia / San Sebastián	78.469	10,1	42.259	8,2	1,86	1,82	47,1	6,1	55,1	6,5	82,7	45,5


p.p.* = aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea
Iturria: Eustat. Establezimendu turistikoko hartzaileen inkesta

Euskal AE osoan, Estatutik etorritako bidaiarien sarrerak % 3,3ko aldaketa positiboa izan dute 2020ko urtarrilean, aurreko urteko urtarrilarekin alderatuta. Jatorria atzerrian dutenak, berriz, % 15,9 igo dira. Arabaren kasuan, sarrerak bilakaera positiboa izan dute bi jatorrietarako, % 7,9koa Estatutik etorritako pertsonen kasuan eta % 5,7koa atzeritarren kasuan. Bizkaian, Estatuko bidaiarien sarrerak % 2,1 egin du gora, eta atzerrikoak, berriz, % 20,8. Gipuzkoan, Estatuko sarrerak % 2,9 igo dira; atzerriko sarrerak, berriz, % 12,9.

Batez besteko egonaldiaren iraupena 1,85 egunekoa izan da azken urtarrilean, 2019ko urtarrilean izandako batez besteko 1,90 egunen azpitik. Araban, iazko 1,88 egunetatik aurtengo urtarrilean 1,91 egunetara igo da; Bizkaian, 1,94 egunetatik 1,84 egunetara jaitsi da; Gipuzkoan, berriz, batez besteko egonaldia mantendu egin da, zeren 2019ko urtarrilean 1,85 egun izan baitziren, eta aurtengo urtarrilean 1,84 egun.

Plazen arabera okupazio-mailari dagokionez, ehuneko 1,3 puntu igo da Euskal AE osoan, 2019ko urtarrilean % 37,1 izatetik aurtengo urtarrilean % 38,5 izatera igaro baita. Araban ehuneko 3,8 puntuko igoera izan da, % 34,8tik % 38,6ra. Bizkaian ehuneko 1,3 puntuko jaitsiera erregistratu da, 2019ko urtarrilean okupazioa % 37,8koa izatetik joan den urtarrilean % 36,5koa izatera. Gipuzkoan, okupazio-maila ehuneko 4,0 puntu igo da, aurreko urteko % 37,1etik azken urtarrileko % 41,1era.

Euskal AEko hotel establezimenduen okupazio-mailaren eboluzioa lurralde historikoaren arabera



Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Gelen okupazio-maila ehuneko 1,1 puntu igo da Euskal AE osoan, eta okupazio-maila % 48,7koa izan da. Araban ehuneko 5,3 puntu egin du gora, eta % 51etan kokatu da; Bizkaian, ehuneko 2,1 puntu jaitsi da, eta % 47tan geratu da; Gipuzkoan, berriz, ehuneko 4,0 puntu igo da, eta gelen arabera okupazio-maila % 50,1etan kokatu da.

Urtarrilean, plazen arabera hotel-okupazio handiena Donostian gertatu da (% 47,1), ondoren Arabako Errioxan (% 45,1) eta Gipuzkoa Kostan (% 41,3).

Asteko eguna kontuan hartuta, asteburuetan gertatzen da okupazio handiena Euskal AE osoan 2020ko urtarrilean, plaza okupatuena % 45,3rekin, eta gainerako egunetan erregistratutako okupazioa % 35,6koa izan da.

Azkenik, **sektorearen errentagarritasun-adierazleei** dagokienez, Euskal AEko hotelen eguneko batez besteko tarifa (ADR) 68,5 eurokoa izan da 2020ko urtarrilean, urtebete lehenago baino % 3,5 handiagoa. Batez besteko tarifa 56,5 eurokoa izan da Araban (% 1,3 behera), 70 eurokoa Bizkaian (% 3,6 gora) eta 71,3 eurokoa Gipuzkoan (% 5,3 gehiago).

Gela eskuragarriko diru-sarrerak (RevPar), zeinak okupazioaren arabera diren, 33,3 eurokoak izan dira Euskal AEn 2020ko urtarrilean, 2019koan baino % 6 gehiago. Araban 26,2 eurokoak izan dira; Bizkaian 33,2 eurokoak; 31,2 eurokoak Gipuzkoan.

Landa-ostatueta, sarrerak % 26,1 igo dira, eta ostatu-gauak % 45,5, 2020ko urtarrilean

Urtarrilean 4.808 sarrera erregistratu dira Euskal AEko landa-ostatueta, aurreko urteko hilabete berean baino % 26,1 gehiago. Lurraldeka, Araban % 17 igo dira, eta Bizkaian % 12,4. Gipuzkoan hazkundera % 35,9koa izan da. Izan dira 537 atzeritar-sarrera, zeina den % 1,3ko jaitziera aurreko urtekoan aldean, eta sarrera guztien % 11,2 da hori. Bestalde, Estatutiko sarrerak % 30,6 igo dira.

Euskal AEko landa-turismoko establezimenduek eta landetxeek 14.749 ostatu-gau izan dituzte urtarrilean, hau da, % 45,5eko igoera izan dute aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta. Lurraldeka, Araban % 17,4 igo dira, Bizkaian % 10,4 eta Gipuzkoan % 72,3.

Euskal AEko landetxeetako gaualdiak, sarrerak, batez besteko egonaldia eta betetze-maila. 2020ko Urtarrila

	Gaualdiak		Sarrerak		Batez besteko egonaldia		Plazakako betetze-maila (%)	
	2020/01	m/m-12 (%)	2020/01	m/m-12 (%)	2020/01	2019/01	2020/01	p.p.*
EUSKAL AE	14.749	45,5	4.808	26,1	3,07	2,66	14,2	4,7
Araba/Álava	2.229	17,4	969	17,0	2,30	2,29	8,9	1,2
Bizkaia	2.983	10,4	1.051	12,4	2,84	2,89	10,3	2,1
Gipuzkoa	9.537	72,3	2.788	35,9	3,42	2,70	19,2	8,0

p.p.* = aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Plazen arabera okupazio-maila % 14,2koa izan da, eta ehuneko 4,7 puntu igo da 2019ko urtarrilean lortutako kopuruekiko. Araban ehuneko 1,2 puntuko igoera izan da, eta plazen arabera okupazio-maila % 8,9koa izan da. Bizkaian, okupazio-maila % 10,3koa izan da, eta ehuneko 2,1 puntu hazi da 2019ko urtarrileko datuekin alderatuta, eta Gipuzkoan, berriz, ehuneko 8,0 puntu igo da, eta urtarrilean okupazio-maila % 19,2koa izan da.

Azkenik, bidaiari bakoitzeko batez besteko egonaldia 2,66 egunekoa izan zen 2019ko urtarrilean, eta 3,07koa azken hilabetea.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62